



baliabideak
material didaktikoa



Ezin dut ez dut nahi

Miren Agurtzane Ortiz Jauregi

Ikasle kaiera

IKD baliabideak 1 (2011)

KASUA

EZIN DUT EZ DUT NAHI

2009ko ekainean Mendez medikuak, Mora Osasun Zentroko psikiatrak, Bilbon bizi zen 20 urtetako Luis Martinez ikaslea jaso zuen bere sendategian. Hau, bere gurasoen eskaeraren bitartez etorri zen, hauek ziotenez, duela aste batzuk, enpresa batean egiten ari zen praktikekin hastearekin batera, etxetik ateratzera uko egiten baitzion, eta bere logelan luzaroan egoten baitzen inorekin hitz egin gabe. Familiak, bere logelatik zetozen zaratak entzuten zituen gauero “altzariak mugitzen egongo balitz bezala”. Luisen ustez arazoa berak lan egiten zuen lantegian zegoela mantentzen zuen eta hara ez zela itzuliko esaten zuen: “Zelatan egiten didate eta nola egiten duten asmatzeko esaten didate” esaten zuen.

Mendez medikuak Luisek eta bere gurasoek esaten zutena arretaz entzun ondoren Luis nola lagundu zezakeen pentsatzen hasi zen.

KASUAREN GORPUTZA

MARTINEZ FAMILIA

Luis Martinez 3 neba-arrebetatik txikiena zen. Bere bi arreba nagusiak jada ezkonduak zeuden eta etxetik kanpo bizi ziren (38 eta 36 urte). Aita, 70 urtetakoa, jubilatutik zegoen (eraikitzailea izan zen), eta ama 65 urtetakoa, beti izan zen etxeandrea.

Etxean bizi ziren Luis eta bere gurasoak kontsultara etorri zirenean. Arrebak, etxetik kanpo bizi ziren duela 10 urtetatik. Nagusia ezkonduak zegoen eta bi seme zituen, eta txikiena bere bikotearekin bizi zen. Ordu arte bere nebaz arduratu ziren “kasik bere amak izango balira bezala” amak zioenez. Arrebak etxetik ateratzean Luisek 10 urte zituen. Hiri bereberetan bizi ziren eta arrebek egunero deitzen zuten gurasoen etxera zelan zeuden jakiteko.

Ama beti egon zen bere semeaz oso arduraturik, oso babestzailea zen, “agian gehiegi babestu dut” esaten zuen.

Aita inoiz ez zen egoten etxean, bere lanagatik denbora asko pasa behar izan zuelako lanean. Luisek kontatzen zuen inoiz ez zituela etxeko lanak egin aitarekin. Ama eta arrebak ziren etxerako lanez arduratzen zirenak eta eskolara eraman eta eskolatik ekartzen zutenak.

LEHENENGO URTEAK: “UMEAK NEGAR EGITEN DU”

Luis Martinez 1989ko abuztuaren 15ean jaio zen. Gurasoek eduki nahi izandako umea zen eta amak jada 45 urte zituen umea bera jaio zenean. Jaiotzean ez zuen izan arazo aipagarririk. Hazkuntza normaleko umea izan zen.

Hala ere, Luisen gurasoek ziotenez, ume zail eta negartia izan zen. Lehenengo bi urteetan ez zuen lorik egiten gauetan. Ama umeari adi egon zen urte horietan, beti berarengan arreta jarritz, eta mediku eta pediatarrengana behin eta berriz eramaten zuelarik, umea denbora guztian baitzegoen negarrez. Medikuek gasak izan zitezkeela esaten zuten eta “ume negarti bat duzunean pazientzia behar dela eta listo” esate zioten. Egunez hobeto zeramaten. Luis atsegina zen zerbait egiten ari bazen (paseoak, bere arrebekin jolasten), orduan pozago zegoen. Hala ere, bazkarien orduak “oinazea” ziren amak esaten zuenaren arabera. Janaria bere gustukoa bazen, ez zegoen arazorik, baina ez bazen, ez zuen jan nahi eta negar egiten zuen. Mendez doktoreak egoera hauetan nolakoa zen Luisen erreakzioa galdetzen zuenean amak esaten zuen erabateko ukoa zela, nahiz eta oldarkortasunik ez zuen, “negar egiten zuen eta koilara sartzen saiatzean ahoa itxi egiten zuen”.

Amak, lotsaz, esaten zuen berak askotan sentitzen zuela ezin zuela aurrera egin gehiago eta bera, ama, gelan giltzaperatzen zela, baita ohean sartu ere egiten zela. Alabek (une hartan 18 eta 16 urte zituzten) hartzen zuten orduan Luisen ardura: aldatu, jantzi, jaten eman.

ETXE HANDIA. BILBORA.

Familia etxe handi batean bizi zen Bilbo inguruko herri batean. Garai hartan hiru txakur zituzten eta Luisek haiekin jolasten zuen. Luis eskolara hasi zen hiru urte zituenean herriko eskola publikora. Zortzi urte bete izan zituen arte herriko eskolara joan izan zen. Oso ikasle gutxi zeuden klasean, 15 neska mutil inguru, guztiak auzokoak eta ezagunak. Luisek kontaktzen zuen ikasle normala izan zela, zailtasunik gabe baina nabarmenik gabe ere gainditzen zituela irakasgaiak. Amak aitortzen zuen bi lagunekin egoten zela, baina ez zela denbora guztian haiekin jolastera ateratzen. “Luisi asko gustatzen zitzaion etxean egotea, telebista ikustea, arrebekin egotea” errepikatzen zuen amak.

Zortzi urte bete zituenean, aitaren lan aldaketa zela eta, familia Bilbora zentrorra joan zen bizitzera, hirialdeko pisu batera. Familiak: aita, ama eta Luisek berak ere erabateko aldaketa izan zela kontsideratzen zuten. “Txakurrak auzokoei eman genizkien” esaten zuen amak. Luisek eskolaz aldatu zuen eta bere bizitza eskolan eta etxean zentratu zuen. Luisen hitzetan honek lagunengalera suposatu omen zuen. Amak zioen ordutik aurrera denbora etxean ematen zuela, bere jostailuekin eta bere arrebekin.

Bilbora joan zirenean eskolaz aldatu egin zuen. Aldaketa handia izan zen, eskola txiki eta ezagun batetik eskola handi eta pribatu batera joan baitzen, non guztiak jada ezagun ziren. Luisek kontaktzen zuen denbora batean txarto pasatu zuela, “barre egiten zidaten eta “berria” esaten zidaten”. Ez zuen lagun askorik egin eta etxean “babesten” zen, amarekin eta arrebekin.

Derrigorrezko hezkuntza bukatu zuenean ez zuen unibertsitatera joan izan nahi eta Lanbide Hezkuntzako ikasketak hasi zituen, Informatika alorrean.

GAUR EGUNEKOA. AZKEN URTEA

2009an Informatika ikasketak (Lanbide Heziketa) egiten ari zen. Oinarrizko moduluaren bigarren ikasturtea bukatzen zegoen. Ordenagailuak gustatzen zitzaizkion. Etxean denbora luzea pasatzen zuen ordenagailuan. Ez zuen lagunik aisialdian denbora igarotzeko. “Batzuetan zinemara edo ziber-era joaten naiz zentroko lagun batekin” esaten zuen Luisek. Gurasoek esaten zuten Luis ordenagailuan eta telebista ikusten igarotzen zuela denbora guztia.

Luis larritzen hasi zen ikasturtearen erdialdean, otsailak inguru, enpresan egin beharreko praktikak egiten hasi zenean. Ez zekien gai izango ote zen

besteen aurrean erantzuteko. Oso urduri zegoen enpresako erantzukizunaz, ordutegiez, bere nagusiaz...

Martxoan eskualdeko parke teknologikoan kirurgi material medikoko enpresa txiki batetan hasi zen praktika ordainduak egiten. Bere lana zen programa informatikoen erabileran langileek izan zezaketen arazoetan hauei laguntzea. Hasieran, lanaren arduradunak lanaren prozedura azaldu zion, baina bigarren astean arduraduna gaixo jarri zen eta Luisek hartu behar izan zuen ardura osoa. Luisek esaten zuen lanean erabiltzen zituen programa informatikoak berriak zirela berarentzat eta asko kostatzen zitzaiola hauek ulertzea.

Gurasoek esaten zuten Luis oso larri ikusten zutela. Hasiera batean, lanera joateko oso goiz jaikitzen zen, baina denbora pasa ahala gero eta beranduago jaikitzen hasi zen (amak zioen bera zela Luis esnatzen zuena baina azken boladan asko kostatzen zitzaiola martxan jartzea).

Gauetz bere logelan giltzaperatzen zen eta ez zituen argiak itzaltzen oso berandu arte. Batzuetan gurasoek hitz egiten entzuten zuten. Hasiera batean ez zioten garrantzirik ematen, baina azken hilabetean egoerak txarrera egin zuen. Gero eta gehiago kostatzen zitzaion goizetan jaikitzea. Enpresara gehiago ez zela joango ere esan zuen, “zelatan egiten didate eta nola egiten duten asmatzeko esaten didate” esaten zuen. Gurasoek esaten zuten duela 15 egun etxeko elektrizitatea ebaki egin zuela, berak soilik deszifratu zezakeen mezu eta kode zifratuak hel zitezen galarazteko. Ordu-arte gurasoek aldaketa nabaria ikusi zuten Luisengan, baina momentu horretan benetan hasi ziren gaixo egon zitekeela susmatzen.

ZERBAIT EGIN BEHAR DA

Egoera honen aurrean gurasoak kezkatuta zeuden eta Luisengana hurbiltzen saiatzen ziren. Honek, Luisek, ez zituen gurasoen eskaerak aintzat hartzen. Beti erantzuten zuen enpresara joan nahi ez zuela eta kito.

Ama, urduri eta kezkatu Luisi gertatzen ari zitzaionagatik, Luisi zer gertatzen ari zitzaion azaltzen lagun ziezaiokeen mediku batengana joan behar zutela esan zuen. Luisek behin eta berriro esaten zuen “medikuen arazoa ez zela” eta inork ezin zuela lagundu. Azkenean, ama, alaben laguntzarekin, Luis

konbentzitu egin zuten Mendez doktoarengana joateko, Luis oso ahul zegoela esanez eta beharbada bitamina batzuk edo bizkorgarriren bat ondo etorriko zitzaizkiolakoan. Luis ez zegoen oso konbentzitura baina azkenean amore eman zuen, alde batetik ama poztearren.

2009ko ekainean Mendez doktoarearen kontsultara joan zen aita eta amarekin.

Argi zegoen egoera honek Luisengan antsietate handia sortzen zuela eta gurasoengan urduritasun handia sortzen zuela ere. Hala ere, Luisek mantentzen zuen arazoa lanera ez joatearekin konponduko zela. Bestalde, gurasoek ez zuten nahi Luisek lana galtzea, baina Luisen heziketan zer egin ote zuten txarto pentsatzen hasi ziren, alaba nagusiekin ez baitzuten arazorik izan. Nola pertsonarteko desberdintasunek eragina izan zitzakeen Luisen gaur eguneko egoeran?

Mendez doktorea gatazka baten aurrean zegoen: alde batetik Luisek tratamendu medikoari uko egiten zion eta bestetik gurasoen eskaera zeukan. Nola har zezakeen nolabaiteko erabakia Luisen partaidetzarekin kontatu gabe? Nola lor zezakeen Luisek tratamenduan parte hartzea?

ERANSKINA

Miaketa Fisikoa

Ez du alterazio fisiko garrantzitsurik.

Oinarrizko neurriak normalak dira: tenperatura, tentsio arteriala, bihotz maiztasuna, eta arnasketa frekuentzia).

Toraxeko erradiografia normala.

Miaketa osagarriak : biokimika orokorra, hemograma, toxikoak gernuan, kraneoko TAKa normalak.

Kontsulta egiten duen unean ez du toxikorik kontsumitzen, ezta lehendabiziko 6 hilabeteetan ere.

Miaketa Fisikoa

Ez dago aurrekin pertsonal psikiatrikorik.

Ez da ikusten toxiko kontsumorik.

Ez du erretzen.

Ez du edaten.

Iturria: Pazientearen historia klinikoa

IKASLEAK EGIN BEHARREKO EKINTZAK

“Ez dut nahi ezin dut” Psikologia Medikoa irakasgaiaren erabiltzeko sortutako kasua da. Irakasgai Medikuntzako Gradu 1. mailako derrigorrezko irakasgai da eta III Moduluko oinarritzko irakasgai (Giza Prestakuntza Klinikoa). Irakasgaiak 6 kreditu ECTS ditu eta 1. Lau hilabetean irakasten da. Irakasgai teoriko-praktikoen ezaugarriek irakats mota desberdinak erabiltzera behartzen gaituzte: klase magistralak, mintegiak, gelako praktikak eta laborategiko praktikak.

Jarraian **ikasleak egin beharreko ekintzak** zerrendatuko dira:

1. Ekintza hau irakasgaiaren irakats eskaintzaren atal bat da, zein banaka, eta taldeka egin behar izango den eta irakasgaiaren ebaluaketaren %20 izango da. Aldez aurretik, kurtsoren hasieran, ikasleei eskola gida eta ekintzen eta lanen egutegia eman zaie. Han, besteak beste, irakaskuntza metodologia desberdinen eta ebaluaketa metodoen berri emango zaie, baita ebaluaketa irizpideez ere..
2. Azaro aldean **ikasleari kasuaren metodoarekiko sarrera** emango zaio eta **ekintzaren aurkezpena** egingo zaio klase osoari eskola magistral batetan. Orduan, ekintzaren oinarriak aztertuko dira eta **kasuarekin lotuta dauden aurre ekintzen** berri emango da. Gainontzeko ekintzak laborategi praktiketan aurkeztuko dira, 18 ikasletako taldeetan.

Sinaduren bitartez asistentziaren kontrola egingo da (ekintza guztietarako erabiliko da kontrol hau).

Bidalitako lanak hurrengo hauek izango dira, jakinik lanak garatzeko ikasleak beharko duen denbora (lan autonomoa edo norbere lana) 2 ordu izango direla (bertaratu gabekoak):

- Nahaste Eskizofreniformeari buruzko informazio bilaketa. Irizpide diagnostikoak. Tratamendua eta pronostikoa. (normalean erabiltzen diren irizpide diagnostikoako emango dira; CIE 10 eta DSM IV TR).
(hitz gakoak: trastorno esquizofreniforme/ schizofreniform disorder, tratamiento/treatment, pronóstico/prognosis)
- Giza eboluzio bio-psiko-sozialean gertatzen diren fenomenoak ezagutu, bereziki gazte nerabearen bizi-egoerarena, honen beharrak, ohiturak, bizitza tankerak eta bizitzaren proiektua, gatazken soluzioa, etab. (klaseko apunteak eta bilaketa libre)
- Mediku-paziente harremanaren aspektu nagusietaz hausnarketa egin: enpatia, komunikazio eraginkorra, kontsulta eskaera (nahita ala ez nahita), lotura terapeutikoa, arrakasta terapeutikoa.

(klaseko apunteak eta bilaketa librea)

- Irakurgai osagarriak:
 - i. OMS (1996) *CIE10 Trastornos Mentales y del Comportamiento. Versión Multiaxial para adultos*. Madrid. Meditor.
CIE-10 (<http://es.wikipedia.org/wiki/CIE-10>)
 - ii. APA(American Psychiatric Association) (2000) Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders *DSM-IV-TR* Fourth Edition (Text Revision)
DSM-IV Breviario (<http://www.scribd.com/doc/12610469/DSM-IV-TR-Breviario>)
DSM-IV
(http://es.wikipedia.org/wiki/Manual_diagn%C3%B3stico_y_estad%C3%ADstico_de_los_trastornos_mentales)
 - iii. Pérez Camarero, S; Rojo Mora, N; Hidalgo Vega, A. (2009) *La Salud Mental de las Personas Jóvenes en España*. Revista de Estudios de Juventud, 84, marzo 09.
<http://www.injuve.migualdad.es/injuve/>



Ortiz, M. A. (2011). Ezin dut ez dut nahi. <http://www.ikd-baliabideak/ik/Ortiz-04-2011-ik.pdf>



Aitortu - EzKomertziala - PartekatuBerdin (by-nc-sa): Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili, ezta ere sortutako lan eratorriak; sortutako lan eratorria banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdi-berdineko baten mende.